

Nafarroako Esaera Zaharrak. Unanu.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zaharrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Unanu.

- 12 *Atxurra, ez bestia!*
"Asta-kirtena" edo olako zerbait esan bearrean.
- 38 *Gabia erdi mantenu.*
Gabea edo deus gutxi duena, maiz goseak.
- 43 *Gari ona kutxatik saltzen da.*
Gauza ona etxetik saltzen da, erakusteko eta salgai jartzeko etxetik atera gabe.
Oihenart-ek: "Oihal ona... (658).
- 48 *Gustoko lekuan aldaparik ez.*
Sari aundia itxoiten denean, lanik gogorrena ere arin arin egiten; eta norbait maite dugunean berdin.
- 64 *Lotsarik ez, bearrik ere ez.*
Ijitoez eta aien antzekoez esana.
- 69 *Moteill, panparron ago! -Degulako!*
Bai ziñez panparroia!
- 84 *Sardin erdia jan, sardin erdia lan: sardin osoa jan, sardin osoa lan.*
- 89 *Txerri gosiak ezkurra amets.*
Jende goseak ere jana amets. Oihenart-ek. "Urde goseak, ezkurra amets".
- 97 *Ze ikusi, ura ikasi.*
Ori egiten dute aurrak eta gazteak; zarragoak, bai etxean ta bai kalean, gogoan idukitzeko esaera.
- 103 *Txikitxo norena?*
-Norena izango naiz?
aitaena ta amaena.
- Begiak beltxak beltxak,*
 norenak dituzu?
 -Zureak, amandrea,
 zuk nai badituzu.
- Nere txikitxua ta*
 nere politxua,
 nori eman diozu

neri agindua?

Seaska-eresiak.

Bizente Lakuntza, Unanuko apaiza, 1912-1936